



# TXIRRINDULARITZAKO 1 MAILAKO ENTRENATZAILE IKASTAROA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak Txirrindularitzako I mailako Kirol Teknikari ikastaroa antolatzen du.

## Zer esan nahi du ikastaroa ofiziala izateak?

Formakuntza araututa dago, eta titulua Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Minisiterioak ematen du. Kirol-jarduera profesionala arautzea autonomia-erkidegoen eskumena da, eta dagoeneko asko dira, legez, prestakuntza hori eskatzen duten erkidegoak kirol-teknikari eta -begirale lanak egin ahal izateko (Katalunia, Madril, Extremadura, Errioxa, Andaluzia, Nafarroa, Murtzia, Gaztela Leon). Eta beste batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoa, Kantabria edo Galizian, aurreproiektuak oso aurreratuta daude eta legea laster onartuko da; beraz, ia estatu osoan ezinbestekoa izango da titulu ofizial bat izatea txirrindularitza talde bat entrenatu edo zuzentzeko.

## Ze eskumen lortuko ditut titulu honekin?

1. mailako entrenatzaile tituluarekin txirrindularitzako gazte mailak entrenatu eta zuzendu daitezke. Titulua lortzeko, beharrezkoa da txirrindularitzako bloke zehatza (egungo deialdia, 2022ko urriaren 8tik 16era) eta bloke komuna (Data zehazteke).

## Ikastaroren batera aurrez-aurre joan beharko dut?

Ikastaroaren % 50 aurrez aurre egingo da, eta %50 online jarraitu ahal izango da

## Datak?

Bloke Komuna (online): Hasi: 2023ko azaroaren 6an. Bukatu: Abenduaren 20an  
Bloke espezifikoak: Sarbide proba: : 2023ko azaroaren 3an. Hasi: azaroaren 7an. Bukatu: abenduaren 22an. Aurrez aurreko klaseak bi asteburutan egingo dira.

Klase presentzialak:

## Non?

Sarbide proba eta klase presentzialak: Berrizko Belodromoan.

## Zein da prezioa?

Bloke komuna: 140€

Bloke espezifikoak: 450€. Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikarako dirulaguntzarekin, bloke espezifikoaren prezioa 250 €-koa da.

Guztira: 390€.



## Nola egin matrikula?

Izena emateko azken eguna: 2023ko urriaren 29a

Matrikulazioa egiteko bete inprimaki hau: <https://forms.gle/5zwWGd6FUuPgoZXj7>

## Zeintzuk dira ikastaroko edukiak?

### **1. mailako teknikaria. Bloke espezifikoa**

Arloa: Garapen profesionala I. 5 ordu

Arloa: Txirrindularitzaren prestakuntza teknikoa eta taktikoa I. 30 ordu

Arloa: Txirrindularitzako espezialitateak irakasteko metodologia. 20 ordu

Arloa: Txirrindularitzako espezialitateen araudia. 10 ordu

Arloa: Segurtasuna eta higiena txirrindularitzan. 5 ordu

Arloa: Hezkuntza estrategien modulua: 2h

Guztira, bloke espezifikoa 72 ordukoa da

### **1. mailako teknikaria. Bloke komuna**

Arloa: Kirol jardueraren oinarriak: 20 ordu

Arloa: Lehen Sorospinak: 30 ordu

Arloa: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna: 5 ordu

Arloa: Kirol antolaketa: 5 ordu

Guztira bloke komuna: 60 ordu

## Praktikak egin behar dira?

Bai, titulua lortzeko, egiaztatutako 150 ordu egin beharko dira.

## Ze betekizun behar dira izena emateko?

Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua (DBH) edo ondorio akademikoetarako baliokidea den titulazioa egiaztatzea.

INFORMAZIO GEHIAGO

[ekitaldiak@fvascicli.eus](mailto:ekitaldiak@fvascicli.eus)